**Ezgaitasun eta bateraezintasun kasuak**
*Causas de incapacidad ó incompatibilidad*

| BOTERE JUDIZIALEKO LEGE ORGANIKOA | LEY ORGANICA DEL PODER JUDICIAL |
|---|---|
| **102. artikulua.** | **Artículo 102.** |
| Bake-epaile izendatu ahal izango dira, bai titularra bai ordezkoa, nahiz eta zuzenbidean lizentziatuak ez izan, karrera judizialean sartzeko lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak eta funtzio judizialak betetzeko aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren batean ez daudenak, jarduera profesionalak edo merkataritza jarduerak salbu. | Podrán ser nombrados Jueces de Paz, tanto titular como sustituto, quienes, aun no siendo licenciados en Derecho, reúnan los requisitos establecidos en esta ley para el ingreso en la Carrera Judicial, y no estén incursos en ninguna de las causas de incapacidad o de incompatibilidad previstas para el desempeño de las funciones judiciales, a excepción del ejercicio de actividades profesionales o mercantiles. |
| **303. artikulua.** | **Artículo 303.** |
| Karrera judizialean sartzeko ezgaituta daude funtzio judizialerako ezintasun fisiko edo psikikoa dutenak; dolozko delituagatik kondenatuak izan direnak, errehabilitazioa lortu ez duten bitartean; dolozko delituagatik prozesatuak edo inkulpatuak izan direnak, absolbitu edo largespen-autoa eman arte, eta beren eskubide zibilak erabat egikaritzen ez dituztenak. | Están incapacitados para el ingreso en la Carrera Judicial los impedidos física o psíquicamente para la función judicial; los condenados por delito doloso mientras no hayan obtenido la rehabilitación; los procesados o inculpados por delito doloso en tanto no sean absueltos o se dicte auto de sobreseimiento, y los que no estén en el pleno ejercicio de sus derechos civiles. |
| **389. artikulua** | **Artículo 389.** |
| Epaile- edo magistratu-kargua bateraezina da: | El cargo de Juez o Magistrado es incompatible: |
| 1) Botere Judizialetik kanpoko beste edozein jurisdikziotan aritzearekin. | 1) Con el ejercicio de cualquier otra jurisdicción ajena a la del Poder Judicial. |
| 2) Estatuaren, autonomia-erkidegoen, probintzien, gainerako toki-erakundeen eta horietako edozeinen mendeko erakundeen herri-hautaketako edo izendapen politikoko edozein kargurekin. | 2) Con cualquier cargo de elección popular o designación política del Estado, Comunidades Autónomas, Provincias y demás entidades locales y organismos dependientes de cualquiera de ellos. |

| | |
|---|---|
| 3) Estatuko Administrazioak, Gorte Nagusiek, Errege Etxeak, autonomia-erkidegoek, probintziek, udalerriek eta batzuen zein besteen mendeko edozein entitate, organismo edo enpresak zuzkitutako edo ordaindutako enplegu edo karguekin. | 3) Con los empleos o cargos dotados o retribuidos por la Administración del Estado, las Cortes Generales, la Casa Real, Comunidades Autónomas, Provincias, Municipios y cualesquiera entidades, organismo o empresas dependientes de unos u otras. |
| 4) Mota guztietako enpleguekin, edozein jurisdikzio-ordenako auzitegi eta epaitegitan. | 4) Con los empleos de todas clases en los Tribunales y Juzgados de cualquier orden jurisdiccional. |
| 5) Ordaindutako enplegu, kargu edo lanbide guztiekin, irakaskuntza edo ikerketa juridikoa izan ezik, bai eta ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko eta teknikoa, eta hartatik eratorritako argitalpenak ere, administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko legerian xedatutakoarekin bat etorriz. | 5) Con todo empleo, cargo o profesión retribuida, salvo la docencia o investigación jurídica, así como la producción y creación literaria, artística, científica y técnica, y las publicaciones derivadas de aquélla, de conformidad con lo dispuesto en la legislación sobre incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas. |
| 6) Abokatutzaren eta prokuradoretzaren jardunarekin. | 6) Con el ejercicio de la Abogacía y de la Procuraduría. |
| 7) Era guztietako aholkularitza juridikoarekin, ordaindua izan edo ez. | 7) Con todo tipo de asesoramiento jurídico, sea o no retribuido. |
| 8) Zuzendari, gerente, administratzaile, kontseilari, bazkide kolektibo edo merkataritzako sozietate edo enpresa publiko zein pribatuetan zuzeneko esku-hartzea, administratiboa edo ekonomikoa dakarren beste edozein eginkizun. | 8) Con las funciones de Director, Gerente, Administrador, Consejero, socio colectivo o cualquier otra que implique intervención directa, administrativa o económica en sociedades o empresas mercantiles, públicas o privadas, de cualquier género. |